



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2015/2016 denboraldia

6 ZK.DUN ZIRKULARRA

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Euskal Gazte Liga lehiaketa antolatuko du 2015/16 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko duten klubak

Anaitasuna C.D.; Añorga K.K.E.; Antiguoko K.E. "C"; Beasain S.D.; Danok Bat "C"; Ermua C.D.; Lauro Ikastola C.F.; Lekeitio F.T.; Lengokoak S.D.; Loyola Indautxu C.; Real Unión C. "B"; Retuerto S.D.; Santutxu F.C.; San Ignacio C.D.; Vasconia C.D.; Zaramaga C.F.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan (hogeita hamar jardunalditan, guztira) egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 6, 13, 20 eta 27; urriaren 4, 11, 18 eta 25; azaroaren 1, 8, 15, 22 eta 29; abenduaren 6 eta 13.

Bigarren itzulia: abenduaren 20; urtarrilaren 3, 10, 17, 24 eta 31; otsailaren 7, 14 eta 28; martxoaren 6, 13 eta 20; apirilaren 3, 10 eta 17.

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte klub antolatzaileek, 15,30etik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan ere ordutegi lerro bat jarri dela, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etarako bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubentzako akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Saikapen ondorioak

Saikapeneko 1, 2 eta 3. amaitzen direnak Gazteen Estatuko Ligara igoko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, sortzen diren hutsuneak betetzeko, saikapeneko hurrengo lekuetan dauden taldeak ere igoko dira maila horretara.

Saikapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak beren lurraldeko ligara jaitsiko dira. Halaber, Gazteen Ohorezko Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, azken saikapenean postu horien aurretxoan egondako taldeek, behar bestek, maila galduko dute. Egoera honek aipatutako mailan klubaren gehiegizkoa suposatzen duenean

Orobat, lurralde ligetan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren gertaturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordezko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Arbitroak

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

7. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2015eko irailaren 1an.

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General